



PRENTSA OHARRA - NOTA DE PRENSA

Bi langile kaleratu dituzte astebete baino gutxiagoan
**Jazarpenarekin amaitu eta kaleratutako langileak berronartzea
exijitzen dio LABek Tubacex-i**

Azken hau ikertzaile pribatu baten txostenean oinarritzen da. Langilearen medikuaren txostenak diotenaren aurka, langilea gaixoaren itxurak egiten ari zela irizten dio.

Berriro ere Tubacexen zuzendaritzaren aurkako salaketa publiko bat egin beharrean gaude. Gaur langile bat kaleratu dute Aceralavako lantegian. Baja medikoan zegoela detektibe bat jarri zuten langilea zelatatzen eta horregatik izan da kaleratua.

Tubacexek, gaizki deitutako “Enpresa osasuntsuaren proiektua”-n dioen moduan, bere helburua absentismoa murriztea da enpresarentzat oso garestia delako eta horretarako duten plan bakarra langileak zelatatzeke zerbitzu pribatua da. Honek langileen eta euren familien intimitateari eraso egiten dio eta auzitan jartzen du bajan dagoen langileak egin dezakeen edozen jarduera, aipatu jarduera medikuak berak aholkatua egon arren.

Beste alde batetik, salatu nahi dugu langile honi egindako jarraipena ez dela kasualitatearen ondorio izan. Duela urte batzuk langile honek behartuta ikusi zuen bere burua barne-salaketa bat aurkeztera, arduradun batzuk ematen zioten tratua ondorioz. Momentu horretatik aurrera bere egoera ez da batere erraztu enpresa barruan. Pasa den otsailean, zigortu ere egin zuten 12 egunez enplegu eta soldatarik gabe bere arduradunak, ez betetzeengatik hiru ohartarazpen jarraian egin ondoren.

Enpresak berak, pasa den martxoan, langileari eskatu zion aholkularitza baten bidez egiten ari ziren elkarrizketa batzutan parte hartzeko, gertatzen ari zena ezagutu eta konpontzeko.

LABen konbentzitura gaude Tubacex-ek ikerketa prozesu hauek irekitzera bideratzen duen ahaleginaren erdia, honek ikertuari sortzen dizkion kalte guztiekin, langileen eskariak erantzutera bideratuko balu, lan- eta segurtasun-baldintzak hobetuz, enpresako langileen errealitatea zeharo ezberdina izango litzatekeela.

Langileok ezin dugu onartu gure bajak enpresarentzako koste bezala ulertuak izatea, ezta gaixotzeengatik langile moduan auzitan jarriak izatea. Zuzendaritzari gogora arazten diogu geu garela osasuna eta bizitza galtzen ditugunak, askotan ditugun lan-baldintzengatik. Baina Tubacex-ek uko egiten dio hau onartzeari, istripuen zerrenda luzatuz doan arren.

Horregatik, jazarpenarekin amaitu eta kaleratutako langileak berronartzea exigitzen diogu Tubacex-i.

Laudion, 2020ko ekainaren 8an